

SEIGARREN TITULUA

"MODULUEN" ARAU PARTIKULARRAK

5.- TXORITOKIETA.

Azalera: 42,759 ha.

A- Irizpideak eta helburuak:

Gotorleku militarra eta haren egitura aurreratua birgaitzea proposatzen da, ekipamendu bat eratzeko han. Natura interpretatzeko, ingurumena ikertzeko edo bestelako zentro gisa erabil daiteke. Hala ere, duen kokapena eta dituen instalazioek eratzten duten azpiegitura kontuan izanda, beste erabilera proposamen alternatibo bat da telekomunikazio-zentrotarako erabiltzea gotorlekua, eta, horrela, instalazioak birmoldatu eta etorkizuneko beharretara egokitzeko modua izatea. Dena dela, Telekomunikazioen Lurralde Plan Sektoriala idaztekoan heldu beharko zaio horri.

Abandonatutako harrobiek hartzen duten tokiaren parte handi bat eta inguruko belardiak ere bere onera ekartzeak aisialdirako eremu ordenatu batzuk edukitzeko modua emango du. Hala, haietan behar izaten diren ekipamenduak jarriko dira (mahaiak, rokodromoa, begiratokiak, jolastokiak, komunak, eta abar), eta tamaina handiagoko ekipamendu batzuk jartzeko bidea ere izango da.

Era berean, ibilbide-sare bat eratzea ere proposatzen da, irisgarritasuna emanez eremuari. Zehazki, Haizetako Zabala trikuharriaren inguruan izango den ibilbide bat diseinatu eta egitea planteatzen da, eta eremuan den iruinarriari dagokion balioa ematea ere bai.

B- Hirigintza araubide partikularra:

Ekipamendu komunitariorako den eraikina finkatu egingo da. Den antenaren instalazio osagarriak birmoldatu egin behar dira, eta haren inguruko eraikinera egokitu.

Eremuan diren harrobiak moldatu egingo dira, Gune libretarako edo kirol edo beste ekipamendu klaseren baterako erabiliko dira; bi harrobi handienetan besterik ez da onartuko eraikinen bat izatea, eta harrobi bakoitzean izango den sabai azalera 800 m²(s) izango da gehienez ere.


Desjabetze sistema erabiliko da.

Egin behar diren obrak egin ahal izateko, eremuaren antolaketa proiektua idatziko da, plan berezi honetan ezarritako irizpideak garatuz, betiere.













C- Grafikoa:

Hona hemen antolaketaren grafikoa, 1:5.000 eskalan egina.

MODULO DE TXORITOKIETA



ESCALA: 1/5.000

- 1  
- 2  
- 3  
- 4  
- 5  
- 6  



de 50 a 80 plazas
 18 JUN. 1999
 Posibilidad de estacionamiento de autobuses
 Obra Ejecutada por Javier Capdevilla Mayoral
 Ingeniero Técnico del Departamento Departamentoko Idazkari Teknikoa
 Servicio Técnico del Departamento de Obras Hidráulicas y Urbanismo

 FRONDOSAS

 CONIFERAS

 Puntos de actuación singular

PLAN ESPECIAL DE ORDENACION
 "PARQUE DE LAU-HAIZETA"